

IKERTZAILE DOKTOREAK UPV/EHU_n KONTRATATZEKO DEIALDIA (2025)**Emandako eta ukatutako eskaeren behin-behineko ebazpena**

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) oniritzia jaso ondoren, Ikerketa Errektoreordetzak honako deialdi hau argitaratu zuen:

IKERTZAILE DOKTOREAK UPV/EHU_n KONTRATATZEKO DEIALDIA (2025)

2025eko urriaren 1ean argitaratu zen Ikerketaren Arloko Errektoreordetzaren web-atarian onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda ebaluazio-fasera igarotzeko.

Eskabideak ebaluatzeko izapidea amaitu ondoren, IGBBk esleipen-proposamena egin du, behin-behineko ebazpena emateko eta argitaratzeko.

Ondorioz, Ikerketa Errektoreordetzak ERABAKI du emandako eta ukatutako eskabideen behin-behineko ebazpena bere web atarian argitaratzea. Behin-behinean onartutako eta ukatutakoen eskaerak I. eranskinean jasota daude, lortutako azken puntuazioaren arabera ordenatuta.

BEHIN-BEHINEAN EMANDAKO ESKAEREK 10 egun balioduneko epea izango dute, laguntzari uko egiten edo onartzen dutela adierazteko **2026ko otsailaren 12tik 2026ko otsailaren 25era (egun hori barne)**. Behin-behinean emandako eskaeren pertsonen <https://egoitza.ehu.eus> **egoitza elektronikoren bidez jakinarazpena bidaliko** zaie. Haiek adierazi behar dute egoitzaren bidez uko egiten dutela edo onartzen dutela.

Epe hori igarotakoan, berariaz uko egiten ez bada, eskabideak onartutzat joko dira.

Kontratua formalizatzeko **dokumentazioa** honako behin-behineko ebazpenaren argitalpenarekin **deialdiaren 13. oinarrian** adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharra dago (**f** eta **g izan ezik**).

BEHIN-BEHINEAN UKATUTAKO ESKAEREK, 10 egun balioduneko epea izango dute, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko, **2026ko otsailaren 12tik 2026ko otsailaren 25era (egun hori barne)**.

Epe horren barruan, hautagaiek beren eskabideari dagokion ebaluazio-txostena eskatu ahal izango dute, pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera idatzita, eta **"POSTUPV 2025 ALEGAZIO"** mezuaren gaian adierazita.

Alegazioak <https://egoitza.ehu.eus> egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira, eta honako hau adierazi beharko da: **"POSTUPV 2025 ALEGAZIO"**.

Salbuespen gisa, eta Espainiako lurraldean bizi ez diren egiaztatzen duten hautagaiek soilik, aurkeztu ahal izango dituzte alegazioak postaz pre-postdoc.dgi@ehu.eus helbidera bidaliz, gaian **"POSTUPV 2025 ALEGAZIO"** adierazita.

Ikerketa Batzordeak hurrengo bileran aurkeztutako alegazioak aztertuko ditu.

Leioan, 2026ko otsailaren 11n

Ikertzailen Kontratazio eta Prestakuntzarako Baliabideen Rudeaketaren Atala
Ikerketaren Gestioko Zuzendaritza
Ikerketa Errektoreordetza